


T X I L L A R D E G I

Jose Luis Alvarez Enparanza, *Txillardeg*i, 1929ko irailaren 27an jaio zen Donostian. Ingeniaritza egin zuen Bilbon 1956an, eta berriz ere Donostiara itzuli, eta 1957an ezkondu zen.

Euskal kulturako eta politikako ekintzaile dugu, aldiberean, Txillardegi eta Larresoro gaitzizenez batez ere ezaguna den Jose Luis. Nobelagile, saiolari (*Huntaz eta Hartaz* 1965), Unibertsitateko irakasle, gramatikari eta Euskara Batuaren aintzindari, 1976an Lizentziatu zen Linguistikan, Parisen; eta 1983an Doktoratu Bartzelonan.



«'ETA' izenaren proposamenarekin joan nintzen bilera hartara»

Orduko hamar idazle hobekienak biltzen dituen Euskal Idazleak Gaur 1977an argitaratu aurretik, inkesta bat zuzendu zuen Torrealdaik euskal idazleen euren artean eta Jose Luis Alvarez Enparanza atera zen idazle hobetsien. Hona liburu horretan irakur dezakeguna: «Euskal Literaturaren bilakaera orokorrean, Txillardegiren obran isladatzen dira nabarien belaunaldi eta ideologi-aldaketaren tentsioak, Leturiaren egunkari ezkutua (1957) eta Peru Leartzako (1960) daudelarik —hasikin orok ohi duen heldutasun falta eta guzti— euskal nobela berriaren sorreran. Elsa Scheelen (1965) da asmo berritzaile hori burutu zuena».

Baina gaurko honetan ez diogu galdetuko Txillardegiri literaturaz, politikaz baizik. Eta asmo horrekin joan gaitzaizkio Billabonako Amasa auzoan duen Bidarte etxera. Lehen eror zorian zegoen zur eta harrizko etxe berriztatu honetan bizi da Jose Luis bere emaztearekin. Abegitsu gonbidatzen gaituzte barrura eta bete-betean irekitzea erabaki dugu iraganaren leihoa.

■ Nola bururatu zitzaizuen ETA izena? —galdetu diogu Txillardegiri.



▼ ETA? Bada, izen bat behar zuen gure organiza-
zioak, bi helburuak bildu behar zituen: Herria-
-Independentzia zelarik lehen xedea (Euskadi Es-
tatuaz mintzo ginen) eta, faxismo garai hartan, be-
netako Demokrazia bestea. Honen aurrean, bi pro-
posamenekin joan nintzela gogoratzen naiz Deban
egin zen «mahai nazional» hartara (guk «peti»
esaten genuen, «Petit Comité»): ATA edo ETA
(Aberria eta Askatasuna, edo Euskadi eta Askata-
suna), eta azken hau aukeratu zela. «Ata» (patoa)
Bizkaian irrigarri gertatuko zelakoan edo.

■ **Bataio eguna, beraz, 1958ko bukaerako hura.**

▼ Bai, eta gogoan dut Julen Madariagak esanaz:
«Aurki ETA sigla, EOKA baino askoz ezagunagoa
eta askoz inportanteagoa izango da». Orduan
EOKA, Txipre greziarraren aldekoa, oso entzuna
baitzen.

■ **Eta arrazoia. Halere, nondik nora heldu zine-
ten organizazio hori sortu behar zela erabakitze-
ra?**

▼ Bada, 1949-50ean jende-harrapaketa batzuk
izan ziren eta geroago Ekin-en sorreran izango gi-
nen hiru-lau erori ginen ondorioz, bi sarekada
desberdinetan: Bizkaian adibidez Benito del Valle,
Gipuzkoan Iñaki Gaintzarain... eta ni neu ere bai.

■ **Orduan, Ekin sortu aurretik atxilotu zintuz-
ten?**

▼ Bai. Nik dagoeneko 49an egin nuen alde etxetik

hemeretzi urterekin, gogoratzen naiz etxekoan desgustuaz, eta
50eko uztailaren 4ean espetxeratu
ninduten Martutenen hilabete ba-
terako. Orduan EIA barruan gen-
biltzan (Eusko Ikasleen Alkarta-
suna), «apolitiko eta akonfesio-
nala» zinez, zentrala Holandan
zeukan federazio bat, baina Ekin
sortu aurretik geunden ia marka-
turik.

■ **Fitxatuak orduan dagoeneko.**

▼ Eta horregatik, zeozer serioan
egin behar zela erabakitzerakoan
1952an, segurtasun arau estuekin
hasi ginen. Hortik zenbaitek gutaz
atera zuen inpresioa. Krutwigek
adibidez, ETA «Euskaldun Tene-
brosoen Alkartea» zirudiela zioen
1961 inguruan. Mugimendurekin
hastean, izenik ere ez genion eman.
Boletin bat ateratzen genuen, *Ekin*,
eta horrela hasi zitzaigun jendea
«los de Ekin» deitzen.

■ **Aldizkariak eman zizuen, beraz, izena.**

▼ Horrela da, taldetxo hartan izenik gabe ibili gi-
nen, 1958ko bukaeran ETA izena hartu arte. Hortik
Euzko Gaztedikoak ginela esatea: EAJ inguruan
eta gazteak... beraz EGIkoak. Orduan ere PNVk
bere burua indar abertzale bakartzat baitzuen.

*Betaurreko gardenak ditu gure pertsonaiak, aurpegia
ezkutatzen ez duten horietakoak. Eta arrenkurarik
gabe irekitzen dizkigu Jose Luisek bere barrengo ate-
leihoak, ezer gorde gabe.*

■ **Eta haserako ideia hura, zeozer egin behar zela,
nola sortu zen?**

▼ Hor, egia esateko, mugimendu bat sortu behar
zela Alderditik aparte, horrela lehenbizi planteatu
zuen, Iñaki Gaintzarain bilbotarra izan zen, han-
dik laster Caracasera joan zena, Benito del Valle eta
biok, haren ideia aurrera bota nahian, jendea bil-
tzen hasi ginen. Gero berehala sortu zen ekipo bat,
haserako bostak: Julen Madariaga, Jose Manu
Agirre, Alfontso Irigoien eta gu biok.

■ **Eta EAJ? Ezen disidenteak zinetela ere esan ohi
da.**

▼ Ez ziren enteratu ere egin, handik urte batzu-
etara arte. Ezin ni PNVren disidentea izan, ordea,
ez bainaiz sekula EAJkoa izan. Eta gauza bera bes-
teak. Ègia da J.M. Agirrek eta Rafa Albisuk (Do-
nostiako lehenengo taldekoak), esaterako, EAJ-
koak zituztela guraso edo senideak. Gure osaba

“
Nik dagoeneko
1949an egin
nuen alde etxetik
hemeretzi
urterekin, eta
1950ean
hilabetez
espetxeratu
ninduten
”

ere, Migel Enparantza, Monzonekin eta ibili zen maiz gerra aurrean. Baina guzti hori normala, ezta?

■ **Eta EAJ barruan somatzen al zen mugimendurik?**

▼ Bada, ez; egia esan, ez. 1957ko Francoren Erreferendum («Erreberendum») zela eta, atariz-atari banatzen ibili ginen abstentziorako propaganda EAJkoa zen, uste dut, eta teorian bai, bazegoen «El Consejo Delegado del Gobierno Vasco» delakoa ere (PSOE eta ANV barne zirelarik), baina zeharo geldi zegoen guzti hura.

■ **ETA sortzean, talde armatu bat egitera zindoazten, ala..?**

▼ Ez, ez... haseran ez. Guk haseran nahi genuena hau zen: EAJtik aparteko talde bat osatzea. Ezen ikusten genuen Alderdia hipotekatuta zegoela erabat. Amerikarrek eta britanikoez hemen demokrazia ezarriko zutelakoan, hori bazetorrela, eta itxarotea besterik ez zegoela... eta horrelakoak esanez. Oso konfesionalak ziren, gainera, karlistak bezala. Gu, ordea, laikoak ginen orokorki.

■ **Eta haserako ideiatik talde armatura igarotze hori..?**

Data eta datuak erruz ematen hasten zaigu hemen Txillardegia, bere oroimenak azkar eta erraz garanduz. Taldeetan eratzen hasi zen ETA, kronologikoki lehena Idazketa-adarra zelarik, gero Talde-adarra (zelulak sortzeko adarra); hirugarrena Euskara, laugarrena Ekintza paraleloak (mendi taldeak, folklore ekintzak...); eta bostgarrenari Zabalkunde-adarra deitu zioten, Zutik argitaratzen zuelarik. Eta seigarren adarra, praktikan ETA sortu zuena, Ekintza-adarra. Ekintzak esatean, pintadak, noizean behin sabotai txikiren bat... baina ekintza armatua planteatu ere ez oraindik 1958 hartan. Eta Manzanan-en heriotzera arte 1968an, ETAk ez zuela eragin «biktimarik» diosku bederatzi urte haietan, 1964an muga gertatutako «istripitik» aparte.

■ **Baina trenaren deskarrilamendua burutu zenutenean izango zenuten, bada, borroka armatuaren planteamendua?**

▼ Ez zegoen oraindik arma planteamendurik. Gauzak gogortzeko asmoa, bai. Gogoratzen naiz, bolada luze bat izan genuela, 1958-1960 bitartean, zein bide hartu behar ote zen zeluletan eztabaidatzen: Gandhi-ren bidea ala borroka armatua. Gandhiren bidea lepoa arriskatuz, eta ez literatura eginez, hori zen ETAkide batzuk proposatzen zutena; borroka armatua zela bide bakarra zioten, bitartean, besteek. Eta 1960-61ean erabaki zen azkenean borroka armatua, baina eztabaida luzeen ondoren! Har kontutan gure taldean oso kristauak zirela batzuk formazioz. Pausu hori ematea ez zen,

‘
Hasieran ez
zegoen armak
erabiltzeko
asmorik; 1960ra
arte ez zen
borroka armatua
erabiltzea
erabaki

’

beraz, batere samurra izan. Eta hemen egia historiko bat, inoiz aipatzen ez dena, ETAk izan zuen lehen biktima Jose Mari Quesada antiguarra izan zela, komisaldegian sekulako egurra hartu, eta torturen ondorioz handik gutxira hil zena, 1960an uste dut. ETAKoa izan zen, beraz, lehenengo biktima eta ez alderantziz.


■ **Eta borroka armatura jotzeak izango zuen ondorioz izan zuen artean, ezta?**

▼ *Ekintza* taldea sortzean (hor ziren Madariaga eta), bitan bereizi zen ETA: ETA politikoa batetik, aipatutako lehen bost adarrekin (hor nenbilen ni), eta talde armatua bestetik. Talde osagarri gisa biak, noski, koordinazio komite batekin —talde bakoitzetik bi—. Gertatu zena, adar militarra gero eta indar gehiago hartuz joan zela, adar politikoa itzalean geratuz. Baina badiotsut, sasoi hartan borroka armatua baino «ekintza gogorrek» ziren planteatzen zirenak.

Hizketa joria Txillardegirena, elkarriketetan ohitua. Mamira doa zuzenean eta ez du galtzen haria.

■ **Nola gertatu zen ETAREN zabalkundea?**


▼ ETAREN zabalkundean bi fase bereiz daitezke. Lehen fasea 52tik 60ra, *Ekintza adarra* sortu arte, oso poliki, eta ikastaroen bidez gertatu zen. Formazio ikastaro hutsak ziren, baina gero batzuei esaten zitzaien: beno, hemen badago organizazio bat, zeuk erabaki sartu ala ez, baina aurretik zin egin behar duzu (juramentu famatu hura) inoiz ez duzula honetaz hitzik ere esango. Batzuek aurrera



egiten zuten, gutxik, eta besteak sinpatizante gisa edo gelditzen ziren, organizazio paralelo delakoe-tan. Horrela joan zen zabalduz ETA ekintzaile mai-lan.

■ Nolakoa zen garai hartan gertatzen zen ezta-baida ideologikoa?

▼ Konturatu ginen, hasieratik, ezkerrera jotzea zela bidea, eta Biltzarre Eratzailea ere egiteko ginen 1960an. Baina atxiloketak etorri ziren; eta 1962an egin genuen, Beloken geure bilera nagusia. Han gogorra izan zen, bai, eztabaida politikoa, zeren eta definitu beharra baitzegoen dena, maila guztietan. Batzuek erakunde ezkertar bat nahi genuen, baina erreferentzia dogmatikorik gabe. Marxismoa bai, aportazio gisa, baina abertzaletasuna jarriz lehen arazo moduan, eta ez alderantziz. Eta beste batzuek, Pako Iturriozek, eta gero MC sortuko zute-nek, marxismoa zela bidea zioten, eta marxismoa-



Hauek dira Txillardegik idatzitako liburuak, guztiak euskaraz. Horieta batzuk behin baino gehiagotan argitaratu dira, eta beste batzuk hainbat hizkuntzataraz itzuli dituzte. Zerrenda honetan ez daude eskola liburuak, ezta matematikak euskaraz irakasteko egindakoak edota atzerriko egileen liburu euskaratuak ere.

ren barruan bideratu behar genuela mugimendua. ETaren I. Asanblada hori ez hausteko nahikoa lan izan genuen, orduan, eta lehen definizio famatu hura onartu egin zen: «ETA es un Movimiento Patriótico Revolucionario Socialista de Liberación Nacional». Sozialista iraultzailea bai, beraz; baina eredu sobietarraren aurrean beldur nintzen ni orduan, eta beti izan naiz beldur; beste diktadura bat ekarriko baitzuen.

■ Eta I. Asanbladaren ostean?

▼ Ezaguna da nola sortu zen V. Asanbladan lehen zatiketa. 62tik 66 hartara, urtero egin ziren asanbladak eztabaida gogorrez betiere, baina nabari ziren ia bi muturrak: Bilbo aldean, batetik, «Frente Obrero»; eta Etxabe, eta haien inguruan, biltzen zen adar militarra bestetik. Baina lehen esan dudan horretan zegoen koska: marxismo-leninismoak, frankismoaren eraginez gehienik, oso prentsa ona zuen; eta PCren infiltrazioa nabarmen zegoen leku askotan. ETA euskal partidu marxista-leninista bihurtzeko asmoa finko zegoen.

Liburuak

- Leturiaren egunkari ezkutua*, Ellakuria Argitaletxea, Bilbo, 1957.
Peru Leartzako, Itxaropena Argit., Zarautz, 1960.
Huntaz eta hartaz, Goiztiri Argit., Baiona, 1965.
Elsa Scheelen, Kriselu Argit., Bilbo, 1969.
Sustrai bila, Irakur Sail Argit., Donostia, 1970.
Atsotitzak eta neurtitzak, Irakur Sail Argit., Donostia, 1971.
Hizkuntza eta pentsakera, Etor Argit., Bilbo, 1972.
Euskara batua zertan den, Jakin Argit., Donostia, 1974.
Oinarri bila, Alvarez-Lorea inprimategia, Donostia, 1977.
Euskal Herritik erdal herrietara, Donapaleu Argit., Zornotza, 1978.
Euskal gramatika, Ediciones Vascas Argit., Donostia, 1978.
Haizeaz bestaldetik, Donapaleu Argit., Zornotza, 1979.
Fonologiaren matematikakuntza, UEU, Iruñea, 1979.
Euskal aditz batua, Euskaltzaindia, Donostia, 1979.
Euskal fonologia, Ediciones Vascas Argit., Donostia, 1980.
Euskal kulturaren zapalkuntza, Adi Argit., Donostia, 1983.
Euskal azentuaz, Elkar Argit., Donostia, 1984.
Elebidun gizarteaz azterketa matematikoa, UEU, Iruñea, 1984.
Gertakarien lekuko, Haranburu Altuna Argit., Donostia, 1984.
Kosmodromo, Haranburu Altuna Argit., Donostia, 1984.
Exkixu, Elkar Argit., Donostia, 1988.
Antigua 1900, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia, 1992.

Idazle honek, bere jarduera intelektualean, zenbait aldizkari zuzendu ditu, politikoak zein linguistikoak, eta beste askotan ere kolaboratu izan du. Txillardegiren idazle lana biribiltzeko, aipatzekoak dira ere egunkari eta aldizkarietan argitaratutako ehunka artikulua, halaber liburu kolektiboetan izandako eskuhartzeak.

■ Izan al zinen zu V. Asanblada hartan?

▼ Ez. Ni Belgikan nengoen garai hartan. Eta 1967an ETAtik baja eman nuen. Erabakia zenez Buruzagitzan parte hartzeko fisikoki Euskal Herrian behar zela egon, nik orduan baja eman nuen. Proiektu marxista-leninista batean eskuhartzerik ez nuen nahi; eta Belgikan bizi izanik, bestalde, ez nuen eskubiderik ere nire eritzirik ezartzeko.

■ Kolpe gogorra izango zen hura zuretzat.

Mahaira makurtua ari zaigu hizketan Jose Luis, lagunkoi, jarrera pontifikalik gabe. Eskuak sarritan belauan gainean ditu, mahaipean, esaten ari denari azpitik eutsiz bezala.

▼ Atsekabe handikoa izan zen hura niretzat, bai. Haserretu ere egin ziren asko eta «traidore», eta «burges txikitza», jo zenbaitek. Eta orduan izan zen *Branka* aldizkaria ateratzea erabaki genuena.

■ Hori. Zer izan zen *Branka*?


▼ Aldizkari bat, abertzalea eta ezkertarra, baina marxismo-leninismoari buruz kritikoa eraberean. Baina egin kontu gu ETAREN aurka gertatzen ginela orduan, Exekutibaren boikot osoa genuen, beraz, aldizkaria zabaltzeko eta denetarako. Gero jakin genuen lehenengo aleak oro itsasora bota zituztela; eta batipat ezintasun baten historia izan zen *Branka*. Hamabost zenbaki edo atera genituen, azkena Salvador Allenderi buruz, lagunuen bidez banatzea lortuz ale gutxi batzuk.

■ Eta zer bide markatzen zenuten zehazki?

▼ Ez da ahaztu behar orduantxe gertatu zela Frantziako 68ko iraultza, eta guk oso hurbiletik jarraitzen genuela guzti hura. Benito del Valle ere Parisen bizi zen... Eta gogoratzen naiz itxaropen handiak genituela Txekoslovakiako prozesuaz. Lortu ere egin genuen harremana Norbert Tauer-en bidez, eta bertara irteteko nintzen, baina tanke sobietarrak sartu ziren, eta bukatu zen hura.

■ Lehen ere sobietarren kontrakoa eta, esango zenuen...

▼ Bai, bai. Garbi zegoen zertan zen horien sistema. Baina *Brankan* agertzen da nola erakartzen gintuen Txekoslovakiako «Consejos Obreros»-en sistema hark. Sozialismo radikalak nahi genuen, baina beste diktadurarik gabe. Salvador Allende etorri zen gero, eta potto horrek ere. Nora jo gabe gelditu ginen



“ Sozialismo
radikalak
nahi genuen,
baina beste
diktadurarik
gabe

1971n. Eta Euzko Gaztedirena gertatu zen orduan.

■ Euzko Gaztedi?

▼ Bazen orduan disidentzia bat Euzko Gaztedi barruan, Herrerako Iñaki Arregi *Ezkerra* eta bere taldea, PNV eta PCren arteko erdibide bat aurkitu nahirik, gu bezalaxe. Eta «Aintzina» izenarekin abiatu ginen, EGI-Batasunarekin, aintzinako ETAREN sorreran izan ginen zenbait eta Euzko Gaztedi heterodoxo hura, eta erabaki ere egin genuen ideologia, estrategia eta dena, PNV eta orduko ETAREN bitarteko bidea markatuz. Munduko mardirik guztiakin, noski. Baina hasi ere egin orduko, non erortzen den jende guztia, Endrike Knörr ere espetxeratu zuten orduan urtebetez edo. Eta orduan izan zen Ezkerrak-eta esan zigutena: «Honela ez dago zereginik, eta ETAN sartzera goaz».



Txillardegik adiskide mina zuen Telesforo Monzon. Argazkia Salles d'Armagnac herrian egina da, 1971 urtean.




Euskal Gramatikaren aurkezpenean, 1977an inguru, Euskaltzaindiko kideekin. Ezkerretik hasita, Endrike Knörr, Juan San Martin, Alfontso Irigoien, Gotzon Olarte, Txillardegi bera, eta Joseba Intxausti.



Txillardegi zortzi urtez bizi izan zen Ipar Euskal Herrian, eta horrezkero lotura estuak izan ditu bertako mugimenduarekin. Ezkerreko karikatura, Enbata astekariko marrazkilariak egina da.



Alaitasun eta dibertsiorako tartea. Lagun batzuekin dantzan, Donostiako Arrano Beltza elkartean (1982). Ezkerrean, Daniel Landart idazlea eta laguna ageri da.



Maiz azaldu du Txillardegik deportatu eta errefuxiatuekin elkartasuna. 1988ko argazkian, eskuinekoa Juanra Aranburu da (Cabo Verden itoa), eta erdikoa Bizkaiko Errementeria.

Kitto orduan.

▼ Kitto, bai. Gelditu genuen *Branka* ere, eta horrela harrapatu gintuen Francoren heriotzak, ez batzuekin ez besteeekin...

■ Soma dezakegu nola ikusiko zintuzten kanpotik, baina zuk zeuk nola zenekusan ETA, areriotzat, edo...?

▼ Ez, inola ere ez. Gu ETako sentitzen ginen, baina hor bazegoela infiltrazio bat uste genuen, PCren aldetik, Exekutibatik kontrolatzen zuena Erakunde osoa. Desbideraketa bat zegoela genekusan ideologia aldetik, baina ETA barnean kokatzen genuen geuron burua, posizio kritiko batetik. Moskuko tentaziorik nik behin ere ez dut izan; eta uste dut jendeak hori irensten bazuen, informazio faltagatik edo zela. Marxek berak baino gehiago kilikatu nau ni Bakuninek, adibidez, oso anti-koarteleroa izan bainaiz betiere. Halere, badakit Marxi esker mugitu dela gauza asko, baina...

■ Eta hasierako haietatik geratzen al da, gaurregun, zure eritzi hauekin bat datorrenik?

▼ Nik uste dut ETA zaharreko gehienak daudela posizio honetan gutxi gorabehera, nire ustez diot hau. Eta oraingo HBko jende asko ere bai.

■ ETA utzi, eta zenbait jende «traidoretzat» hartu zintuen garai hartaz zer pentsatzen duzu orain?

▼ Niri pena ematen didana gure herrian, orain akaso gutxiago; baina, garai hartan behintzat, sekulako borondatearekin batera hain formazio gutxi izatea. Abertzaletasun itzela bai, baina kristoren kakao mentala. Esaten den edozer sinestu, batere izpiritu kritikorik gabe, bete-betea. Amorrua ematen dit esaterako, *Felipe*koak ETAn sartu zirenean, nor eta Jose Ramon Recalde, non eta Goierrin, ETaren izenean hitzaldiak ematen ibiltzea, eta jendeak eurentarikitatzat hartzea. Eta orain MCn edo PSOEn daude, baina ez aldatu direlako, lehen ere horrelakoxeak baitziren. Gertatzen dena jendeak bete-betea sinesten duela zernahi. Nik uste apaizen eta Elizaren eragina dela hau gure herrian. Nola ulertu, bestela, gaur EAJn Arzalluzekin gertatzen dena: Arzalluz «abertzalea» dela esan, politika «abertzalea» daramala esan, eta jendeak... sinestu! Eta bada HBn ere denari «amen» esaten dion jendea...

Kontakera beroa eta sutsua du gure lagunak gaiak eskatzen duenean. Gogo eta odola eransten dio hitzari.

■ Eta zer sentipen duzu, horrela orokorrean, garai hartaz?

▼ Bada, nik uste garai hartan, 68tik hasi eta 78ra arte edo, sekulako dinamika, baina sekulako des-

68tik 78ra
sekulako
dinamika egon
zen, baina
desbideraketa
ere bai; baina gu
omen ginen
desbideratuak,
eta ez J.R.
Rekalde

bideraketa egon zela. Baina gu omen ginen desbideratuak, eta ez J.R. Recalde. Itzela da hori gero!

■ Apaizak aipatu dituzenez gero, izan al zenuen harremanik apaizekin? Ezen esaten baita apaiz-eteak izan zirela ETaren koartelak...

▼ Izan daiteke horrenbeste ere. Baina apaizekin harreman berezirik nik neuk... Beno bai, Xarritton ere apaiza zen, eta Iñaki Aspiazu... Iñaki Aspiazuren atzean bazen apaiz mugimendu bat, eta guk begenekien Aspiazurekin hitz egiten genuenean, berarekin gehi bere atzean zeudenekin egiten genuela.


■ ETaren zabalkundea herri txikietatik etorri al zen, hirietatik...?

▼ Haseran denak ginen estudianteak, lehenengo labekada hartan denak. Gero herrietara jo genuenean Euzko Gaztedirekin egin genuen topo, baina ezer ez egiteaz kokoteraino zegoen jendearekin. Azpiegitura aldetik bi zentru nagusi genuen, Bilbon bata eta Donostian bestea, eta Bizkaiko bederatzi herrialde eta Gipuzkoako zortzietan bage-nuen jendea. Ez, ordea, Araban eta Nafarroan...

■ Eta erakuntza lan horretan, zeintzu bide erabiltzen zenituzten?

▼ Ba lagunengatik bidez. Nortzu zitezkeen konfidantzazkoak eta interesatuak galdetuz... eta gero tabernetan bilduz, afari-merienda modura...

Sukaldera atzea emanda dago jezarrita Jose Luis eta bada han mugimendua. Etxeko txakurrek ere egiten dituzte sar-irtenak noizbehinka. Andrea telefonoan ari da orain.





■ Pasadizoren batzuk gogoan izango dituzu ba, ETako garai haietaz?

▼ Asanblada batetik zetorren jendeak, poliziar-ekin topo egin zuen behin Izaban, eta mendian gora hanka. Jende hori mendian galduta zebilen notizia heldu zitzaigun. Nola? Galduta? Goazen ba bila. Eta han goaz bi edo hiru kotxetan. «Où allez vous?», mugako gerdarmeeek halako guraize moduko kontrol-tresna eta guzti. «A la montagne»... Aurkitu genuen ba gure jendea eta pozik, besarkadak... «Baina okerrena behean dago —esan genien— txakurrak dauzkagu hor zain, Zuberoan». Eta metrailetadunak: «No pasa nada, si nos detienen, les arrasamos...», eta beherantz. «Zer duk hau?», pentsatzen nuen nik, mutila metraileta bat leihotik kanpo aterata. Hots, desagertuak ziren txakurrak! Kontrola kendua zen. Sekula halakorik!

Berriro ere aintzinako garaiez mintzatzean, azkar eta koloretsu datozkio Txillardegiri oroipenak. Jose Antonio Agirrerekin behin izan zela berbaz, Ekin-eko istilu haietan, eta gizon zabala iruditu zitzaioela. Jabetzen zela zioen belaunaldi gaztearekiko lotura moztuta zegoela EAJn, eta gauzak konpontzearen aldekoa zela. Ajuriagerrari buruz ez du gauza bera pentsatzen. «Berak agintzen zuen, eta ez Agirrek, orain Arzalluzek bezala. Eta orain Arzalluz bezala, pertsonaia atzerakoi hutsa zen. Blokeoa baino ez genuen jaso hargandik».

Jose Luis Alvarez Enparanzak hainbat urte pasatu ditu sorterritik kanpo. Zortzi Ipar Euskadin, bost Belgikan, bi Parisen, beste bat Bordelen... Industri-ingeniarria, obren kalkuloan espezialdua, badu fisika eta matematika-zaletasuna. Baina ez du balio ugazabarekin batera azaltzeko langileen aurrean. Bruselan harreman estua izan zuen flandriar «Volksunie» abertzale-alderdiko batzuekin; eta trotsko batzuekin ere bai.

“
Pianoa jotzea
gustatu zait
betidanik; utzi
balidate,
musikara joko
nuen, duda gabe
”

Agnostikoa, sistema biribilak ez zaizkio inoiz gustatu, ezta politikan ere. Bertrand Russell miresten du, matematikoa eta filosofo ezkertarra. Sozialdemokratik gehiago itxaroten zuen, horren ezkerraldeetik. ESBn ere saiatu zen, PNV eta PCren arteko bideren bat ireki nahian. EA eta EERI ez die lekurik ez zentzurik aurkitzen.

Orain apenas duen astirik literatura irakurtzeko eta bere nobelak ere saiakeratzat dauzka gehiago. «Exkixu», adibidez, Iparraldeko giroaren adierazle.

Gela barruraino sartu zaizkigu txakurrak. Hiru txakur beldurgarri dira.

■ Zertarako hainbeste txakur? Beldurra sartzeko ala?

▼ Ez, lehenbizi bat genuen, gero beste bat agertu zen... eta gero bien umea.

▼ Dena dela ez dago gaizki txakurra etxe inguru honetan —gaineratu du andreak.

Sei urte hemen bizi dela gure bikotea, «berriz ezkonberri gisa», dioten bezala. Etxe inguruan den «Troska-erreka» eta «Sorrodore»tik paseiatu, ibili... Goian Belabietan mendia ikus daiteke. Ederra. Txantxangorriak, muskerrak eta txolarreak ugari. Baina seme-alabak datozenean izaten da poza. Hiru seme eta alaba bat.

■ Ba al duzu hobbyrik, Jose Luis?

▼ Pianoa. Pianoa jotzea gustatu zait betidanik. Ama pianojole profesionala genuen, eta lehen sari bat ere irabazia zuen Madrilan. Hortik nire zale-tasuna. Bost urte ibili nintzen gogoz piano ikasten, baina gero aitak debekatu egin zidan, «zaleegia nintzela eta». Baina utzi balidate, musikara joko nuen, duda gabe. Ez zait ahaztuko Bruselan Rubinstein zuzenean entzun ahal izan nuen kontzertu hura. Ikaragarria izan zen.

Eta iritsi da elkarrizketa amaitzeko ordua. Urjenti-ziazko azken eritziak eskatu dizkiogu...

Euskara batuari buruz, aintzinatik ikusi du horren beharra, bere aitona Hazparden ilarrak eskatu, eta babarrunak atera zizkionetik behintzat... Euskararen egoerari buruz, duela hamar urte baino okerrago, baina duela 50 urte baino askoz hobekiago, noski. Espero du PNVren itsukeria eta ezaxola-bolada espagnolista arzalluztarra ere igaroko dela, eta gauzak aldatuko direla. Abertzaleen arteko akordio bat dakusa etorkizunean.

■ Hemen hotz zegok, ez?

Elkarrizketa bukatu, eta orduantxe konturatu hotz zegoela. Eskerrak gero behe-sua martxan jarri eta, ron pixkatek lagunduz, laster berotu ginela.

Txillardegi, Igara, Goienetxe, Larresoro... ditu literatura gerrako izenak. Alvarez Enparanza dugu Jose Luis, bila eta bila ihardunez, eztabaida anitz sortu dituen ETaren sortzailea.